

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Rafael Urzelai Gabiria*

*Legazpi,  
Gipuzkoa  
(1927-2011)*

Aurkibidea



## Biografia



1927an jaio zen Legazpiko udaletxean; 9 senide dira familian, eta guztiak udaletxean jaioak dira. Udaletxea enkantean atera zen, eta aitonak eta gurasoek hartu zuten; gerora, Kontsejupea izenez egin zen ezagun taberna. Aitak ile-apaindegia eduki zuen udaletxean bertan. Gerra hasi zen urtean, Kontsejupe taberna ez zen enkantean atera; orduan, Rafael eta etxeokak Santa Kruzera joan ziren bizitzera. Eskolan, udaletxean ibili zen; gerratean, maisuek ihes egin zuten eta Zumarragako Hermanoetara joan zen; gerora, gau-eskolan ibili zen. 14 urterekin, zapatagintza ikasten hasi zen osabarekin Legazpin. 17 urte zituenerako, lanbidea ikasia zeukan: Bergaran tailer batean eta Donostiako ikastetxe batean ikasi zuen.

## Zintak

### LGA-055

- **Proiektua:** Legazpiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2010-07-28
- **Iraupena:** 77 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

## Pasarteak

### 1. Udaletxeko tabernaren arduradunak

- **Erref:** LGA-055/002
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:02:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

**Laburpena:**

Udaletxean jaio ziren bere familiako senide guztiak. Udaletxeko zati batean taberna zegoen, eta enkantean ateratzen zuten; Rafaelen familiak hainbat urtean hartu zuten hango ardura. Taberna hartan zer zerbitzu ematen ziren azaltzen du.

**2. Udaletxetik beren etxera**

- **Erref:** LGA-055/005
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:04:17. **Bukatu:** 00:05:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

**Laburpena:**

Udaletxearen barruko egitura nolakoa zen azaltzen du. 1936an etxe hura utzi behar izan zuten, ez baitzen enkantean atera; eta orduan, gurasoek beste etxe bat egin zuten.

**3. Eskolan gutxi ikasi ahal izandakoa**

- **Erref:** LGA-055/009
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:08:26. **Bukatu:** 00:12:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

Rafaelen eskola oso eskasa izan zen. Bera eskolan zegoela hasi zen gerra, eta maisu guztiek alde egin zuten, don Eustakio ekarri zuten beraiei erakustera: 90 urte inguru zituen, eta ez zien ezer erakusten, eskolan eduki bakarrik baizik. Handik Zumarragara joan zen ikastera: hango ikasgaiak zeharo ezezagunak egiten zitzaizkion. Azkenean, gau-eskolan ikasi zuen gehien. Franco sartu zenean, euskara debekatu zuten.

**4. Euskara debekatuta egon arren...**

- **Erref:** LGA-055/011
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:15:13. **Bukatu:** 00:16:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Euskara eta politika

**Laburpena:**

Francok euskara debekatu zuen garaian, kalean euskaraz egiten zen oraindik. Umeei zer erakutsi, hura hitz egiten zuten. Etxean dena euskaraz egiten zuten.

**5. Arotz izateko bokazioa**

- **Erref:** LGA-055/013
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:18:23. **Bukatu:** 00:22:14

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
- Lanbideak » Arotzak

**Laburpena:**

<p>14 urte betetzean, neska-mutilen janzkera aldatu egiten zen, eta lanean hasten ziren. 14 urterekin hasi zen Rafael zapatari-lana ikasten. Arotzeria izugarri gustatzen zitzaion ordurako. Kaxak bere kontura tailatzen ibiltzen zen Rafael; hori non ikasi zuen azaltzen du.</p>

## 6. Leihotik arrantzan

- **Erref:** LGA-055/016
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:27:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

**Laburpena:**

<p>Legazpiko plaza ingurua lehen nolakoa zen azaltzen du. Ume txikia zela, leihotik errekan arrantzan ibiltzen zen.</p>

## 7. Umetako jolasak eta pilotak

- **Erref:** LGA-055/020
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:31:32. **Bukatu:** 00:34:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota

**Laburpena:**

<p>Umetan plazan eta elizaren atarian aritzen ziren jolasean. Orduko jolasak aipatzen ditu. Pilotak beraiek egiten zituzten.</p>

## 8. 14 urterekin zapatak konpontzen

- **Erref:** LGA-055/022
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:35:51. **Bukatu:** 00:37:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

**Laburpena:**

<p>14 urte zituenerako, lanean hasi zen. Horretan denbora asko ematen zuen. Hasiera batean, zapatak konpontzen zituen; gerora, egin egiten zituen. Osabarekin egiten zuen lan.</p>

## 9. Batean eta bestean, lanbidea ikasten

- **Erref:** LGA-055/023
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:37:24. **Bukatu:** 00:39:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

### Laburpena:

<p>Hasieran, osabarekin hasi zen lanean; eta handik Bergarara joan zen. Han zer lan izaten zuten azaltzen du. Gerora, Donostiara joan zen, lanbidea ikasten jarraitzera.</p>

## 10. Zapatak egiteko denbora eta materiala

- **Erref:** LGA-055/026
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:40:59. **Bukatu:** 00:44:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

### Laburpena:

<p>Zapatak egiteko prozesua azaltzen du. Zapata pare bat egiteko, bi egun eta erdi ematen zituen. Materiala nola lortzen zuten.</p>

## 11. Zapatak egiteko materiala, kontrabandoan

- **Erref:** LGA-055/027
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:44:07. **Bukatu:** 00:45:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

### Laburpena:

<p>Gerra ostean, Rafaelek 17 urte zituela, errazionamendurik ez zioten ematen. Zapatak egiteko, materiala kontrabandoan ekartzen zuen bizikletaz.</p>

## 12. Kontrabandoko anekdota

- **Erref:** LGA-055/028
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:45:49. **Bukatu:** 00:47:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

### Laburpena:

<p>Lehendik hona, gauzak asko aldatu dira. Kontrabandoan ibili zeneko anekdota kontatzen du.</p>

### 13. Larrua lortu eta zapatak egin

- **Erref:** LGA-055/029
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:47:58. **Bukatu:** 00:50:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

#### Laburpena:

<p>Zapatak egiteko larrua Antzuolatik ekartzen zuen. Zapatak egiteko prozesuaz hitz egiten du. Larrua erosterako, tratatuta egoten zen ontze-fabrikari.</p>

### 14. Takoia itsasteko materiala

- **Erref:** LGA-055/030
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:50:09. **Bukatu:** 00:52:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

#### Laburpena:

<p>Zapatari takoia itsasteko, zer material erabiltzen zuten azaltzen du. Gaur egun, zapatak konpontzeko era oso desberdina da.</p>

### 15. Lehengo zapata klaseak

- **Erref:** LGA-055/031
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:52:19. **Bukatu:** 00:53:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

#### Laburpena:

<p>Lehen zer zapata klase egoten ziren azaltzen du: ingelesak, merzedesak...</p>

### 16. 1945tik orain arteko modak

- **Erref:** LGA-055/033
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:54:32. **Bukatu:** 00:55:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

#### Laburpena:

<p>Rafael 1945ean hasi zen zapatari-lanetan. Orduetik hona zer moda izan diren azaltzen du. Moda-kontuan, gauza berririk ez dago.</p>

## 17. Saltzaileekin nola moldatzen ziren

- **Erref:** LGA-055/036
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:58:03. **Bukatu:** 00:59:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

### Laburpena:

<p>Lehen eskaerak nola egiten zituzten azaltzen du. Saltzailea kutxa handi batekin etortzen zen; eta tren-geltokitik nola ekartzen zuten azaltzen du. Tren-geltokiko langilea goizeko 9etatik aurrera mozkor egoten zen.</p>

## 18. "Gorila" zapata-marka

- **Erref:** LGA-055/037
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:59:40. **Bukatu:** 01:02:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

### Laburpena:

<p>Zapataren neurriaren arabera, larru gehiago erabiltzen da; baina fabrikatzaileek batez besteko prezioa ateratzen du. Lehen "Gorila" marka erabiltzen zuten, oso kalitate onekoak ziren; baina umetan beti marka horrekin ibili ostean, bezeroak aspertuta egoten ziren "Gorila"rekin.</p>

## 19. Zapaten salmenta eta fabrikatako lan-baldintzak

- **Erref:** LGA-055/041
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:06:38. **Bukatu:** 01:08:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

### Laburpena:

<p>Lehen zapatak kaxatan saltzen zituzten. Baina zapata batzuk dozenaka saltzen ziren; eta horiek merkeagoak izaten ziren. Langileek lehen lan-baldintza gogorak izaten zituzten.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-04-30*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com